

ESNE HIZKUNTZAREN LEHEN HIZKIAK

Basamortuko herri bat bere hizkuntzan ari da idazten lehendabiziko aldiz

Kandamairekin hitz egin nahi al duzu?». Erantzuna entzun aurretik, Ahmed Kokik bere mugikorra atera eta Txadeko zenbaki bat tekleatu zuen. 2013ko udazkena zen, baita Libiako hegoaldean ere. Kokik eta bere ingurukoek miresten zuten gizon baten telefonoak gugandik 600 kilometrorra jo behar zuen. *Kandamai* izengoitiaz ezagutzen zuten Mark Ortman. Estatubatuarra zen, eta ia hogeitaz zeramatzan Tibesti mendietan (Txad). Denbora tarte horretan, alfabeto bat sortu zuen Kokiren herriarentzat, tubuentzat. *Kandamai* hitzak, hain justu, “handinahia” esan nahi du tubuen hizkuntzaz.

Ezin izan nuen Ortmanekin hitz egin egun hartan. Basamortua zeharkatu arren, telefono uhinek nekez gainditzen dute Tibestiko harri-mendika-

 **HIZKUNTZALARITZA** / Karlos Zurutuza

Libia, Txad eta Nigerko mugen artean bizi dira tubuak. Euren kultura berreskuratzeko ahalegin betean, ahozko ama hizkuntzaren alfabetoa, eskolak edota egunkariak sortu dituzte azken urteotan. Bideko zailtasunak gertuko eta urrutiko kideen laguntzak leundu ditu.

tea. Edonola, ez zen ezinbestekoa ipar-amerikarrarekin hitz egitea munduko herri ezezagunetako baten berri izateko. Kluxe polit batekin has gintezke: irudikatu gamelu karabana bat Saharako basamortuan zehar: bidaiari guztiak emakumezkoak, ia adin guztietakoak. Beren etxetik ehunka kilometrorra dagoen azoka batera doaz; bertan, janariaren, plateren, manten eta antzekoen truk utziko dituzte hainbat gamelu. Eguzkiaren mugimenduari erreparatzen diote bidea ez galtzeko, baita izarrei ere gauero. Hori bezain garrantzitsua da dunak zenbatzea; han-


Tibestiko zentroan sei asteko alfabetatze ikastaroak ematen dituzte. Anja NEUHAUS

dienak, jakina, txikiak egun batetik bestera agertu (edo desagertu) daitezke-eta.

Zaharrenek nabigazioaren sekretu guztiak erakusten dizkiete gazteenei: 100 metroko desbideratze xume bat eta urputzua galduko dute. Eta bizi-tza. Gutxitan gertatu ohi da, hutsa bikain zeharkatzen baitute beti tubu emakumeek. Milaka urte eman dituzte Libia, Txad eta Nigerko mugen artean –ba ote dira?–, eta hala dihardute egun ere. Tubuak gameluzaleak dira, bai eta turkiar kanilen instalatzaileak, edo beren desertuko petrolio ustiatzaileak. Gutxi batzuek

unibertsitate ikasketak dauzkate –aspaldiko lagun bat Libiako sasigobernu horietako baten Kultur Ministroa izan zen– eta beste batzuek egunkariak nahiz aldizkariak argitaratzen dituzte beren hizkuntzaz. Azken hori, baina, oso berria da.

Tubuentzat ez da inoiz erraza izan, baina Afrikako zonalde lehorrenean jaiotzea ez da izan, inondik ere, beren mada-rikaziorik handiena. Gaddafik boterean eman zituen lau hamarkadetan zehar errepresio bortitza pairatu zuten: lur onenak kendu eta arabiar kolonoei eman zizkien Gaddafik; eskola eta ospitalerik gabe utzi zituen eta, hainbatetan, beren herri xumeak airetik bonbardatu zituen libiar agintari ohiak. Ez da harritzekoa, beraz, tubuek 2011ko altxamendua-ekin bat egitea. Gobernu aldaketaz gain, aldarrikapen zehatzagoak zeuzkaten: funtsean, beren kultur eta hizkuntza oi-



narrizko eskubideak errespetatzea. Tubuen azal koloreak zera adierazten du; ez direla arabiarak, ez eta magrebtarrak ere.

Arabiar hizkuntza beren lurraldeak erdibitzen dituzten muga-lerroak bezain arrotza gertatzen zaie. Honela, oinarritzko beharrak ase aurretik, erlojuaren kontrako lasterketa bati ekin zioten. Galdutako denbora berreskuratzeko grina izan zen horren motorra. Bistan zen Libiako hegoaldean emandako egun haietan. Kokik eta Osman izeneko beste ekintzaile batek beren kultur iraultza ezagutzeko gonbita luzatu zidaten. Murzuk herrian hamaika boluntario eza-gutu nituen: ume eta helduei alfabetatze eskolak ematen zizkietenak, kultur gune berri baten sortzaileak, tubuerazko lehen aldizkari eta egunkarien ekoizleak... “Labara Zala” izeneko argitalpena, esaterako, Gaddafi oraindik Tripolin zela argitaratu zen: 500 ale kalera-tu omen zituzten gerra oraindik indarrean zela eta, gaur egun, 2.000tik gora inprimatzen dituzte. Material asko mugaren beste aldetik iristen zen Gaddafiren urteetan, Tibestitik, hain zuzen. Huraxen, eta da, tubu kulturaren erdigunea.

Lehen saiakeratik hiru egunera amerikarrarekin hitz egiteko parada izan nuen, eta berak eman zizkidan xehetasun guztiak. Kansas atzean utzi eta 1993an iritsi ziren Mark Ortman eta bere emaztea Txadera lehen aldiz, hizkuntza gutxituekin lan egiten duen gober-nuz kanpoko erakunde baten laguntzaz. Istiluak zirela eta, Gobernuak 1999an kanporatu egun zituen, baina, ordurako, tubuek inoiz izan duten lehen alfabetoa paper gainean zuten



jada. Amerikarra 2001ean bueltatu zen Txadera eta tubuerazko lehen eskola eman zuen N'Djamena hiriburuan. Ez omen da hizkuntza erraza: Ortmanek dio ia 200 aldiz konjugatu zuela “eman” aditza behin. Adibide batez azaldu zidan hizkuntz haren zailtasun maila: *neroo* hitzak, “emango banizu” esan nahi du, *n-a* “zuri” delarik, *e-a* “eman” aditzaren erroa, *r-a* “nik” eta *oo* etorkizuneko baldintzaren marka. Atera kontuak.

ELKARLANA

Greziarrek, georgiarrek edota korearrek, besteak beste, zera erakusten dute egunero; ez dela hain arraroa hizkuntza batek bere alfabeto propioa izatea. Gogoan izan bikingoen errunak, edo irlandar gaelikoaren antzinako Ogham alfabetoa: bertikalean idazten zen, eta behetik gora. Eta ba al zenekiten azeri herriak hiru aldiz aldatu zuela alfabetoa (ara-

Tibestiko zentroa da tubu herriaren kultur erdigunea.
Anja NEUHAUS

biarra, zirilikoa eta latindar egokitua) XX. mendean zehar? Bestalde, ez da hain ezohikoa filantropo batek herri baten-tzako alfabeto bat asmatzea. Ziurrenik Wolfgang Feuerstein izan zen Ortmanen aurrekari gertuena. 80ko hamarkadan, alemaniar hizkuntzalariak alfabeto bat ekoiztu zuen laz herriarentzat. Turkia eta Georgia arteko mendietan bizi diren kaukasoarrak dira, Itsaso Beltzaren ertzean. Ankarak ez ditu inoiz begi onez ikusi zirkuito turistikoetatik at dabiltzan

atzerritarrak; Feuerstein berehala kanporatu zuten, eta alemaniarrek bere Ohian Beltzeko jatorrizko herrian bukatu zuen lana. Antzekoa izan zen Ortmanen apustua, baina ezin dezakegu ahaztu bere bost seme-alabek Txaden burutu zituztela Lehen Hezkuntzako ikasketak, eta ez Kansasen.

«Gure umeak tubuekin hazi dira eta, dagoeneko, komunitate honen partaide sentitzen gara denok. Denborarekin konturatu naiz zenbaterainokoa den herri honekin dugun lotura», azaldu zidan Ortmanek behin.

Alfabetoa sortu eta hurrengo pausua kultur zentroa altxatzea izan zen. Ideia Edji Mahmoud izeneko ekintzaile batena izan zen, egun ere Ortmanen gertuko kolaboratzailea dena. Lanari ekin aurretik, Simon eta Anja ezagutu zituzten, Txadetik bidaiatzen ari zen Suitzako bikote bat. 2012an “tubu egunsentiaren”


Oinarritzko beharrak ase aurretik, erlojuaren kontrako lasterketa bati ekin zioten tubuek. Galdutako denbora berreskuratzeko grina da tubuen kultur iraultzaren motorra

Txaden sei asteko alfabetizazio ikastaroak egiten dituzte tubuek: bukaeran sariak ematen dira idazlan lehiaketako irabazleentzat, eta ziurtagiri bana hartzaile guztientzat

istorioa entzun eta berehala agertu ziren laguntzeko prest. Hizkuntzalariak ziren beraiek ere. Urtean sei hilabete ematen dituzte Txaden, zentroan eskolak ematen, eta Suitzan beste seiak, ikus-entzunezko eta *online* materialak ekoizten. 2013an ez zegoen horrelakorik. Libian askotan izan arren, ez dut aukera gehiagorik izan herrialdeko hegoaldera bueltatzeko, ez eta Osman eta Kokirekin berriz egoteko aukera. Libiako amazigekin, ordea, ia bidaia guztietan izan naiz. Herrialdea lehen-dabiziko aldiz 2011n zapaldu nuenetik, buru-belarri aurkitu ditut beti beren hizkuntza proiektuan murgilduta: Libian inoiz izan diren lehen amazigerazko argitalpenak, eskolak, festibalak... Tubuen prozesuak gogora ekarri dit maiz berberen jardunaldia, eta alderantziz. Nolanahi, azken horiek ez dute alfabeto berri baten beharrik izan, 2.000 urte baino gehiago dituen bat baitaukate. Lehen aztarnak harrian eginda aurkitu ziren eta, gaur, *smartphone*-rako bertsioa ere deskargatu daiteke.

Libiako amazigek mintegi bat antolatu zuten iaz tubuentzat. Beren hizkuntza normalizazio prozesuaren berri eman nahi zieten. Hasiera batean Zuwara kostaldeko herrian burutu behar zen topaketa, Tuniaki mugatik oso gertu, baina azken orduko gertaerek bertan behera utzi zuten egitasmoa. Libiaren egunerokoa zen: milizia batek tubuen aireportua blokeatu zuen eta ezin izan zuten hegan egin. Eta ahaztu lurretik bidaiatzeaz: Murzuk eta Zuwara herrien arteko 800 kilometro horiek lapur eta era guztietako gaizkilez josita daude.

Topaketa hiru hilabete geroago egin zuten, Tripolin. Kokik



eta Osmanek behin eta berriz aipatu zituzten hegazkina, eta amazigek beraientzako hartu zuten bost izarreko hotela. Mintegian ikasitakoa ere azpimarratu zituzten, jakina. Amazigak oso aurreratuta zeudela zioen Kokik: beste askoren artean, Amazigh Filologia Departamentua ere abian jarri berri zuten Zuwara herrian. Esan beharra dago Ikastolen Elkarteko kide batek ere parte hartu zuela, Skype bidez. Gurean familia erdaldun askok beren seme-alabak ikastolara bidaltzen zituztela entzuteak

Goian, haurrak tubuerazko alfabetoa ikasten. Behean, alfabetatze ikastaro bati bukaera emateko antolatutako sari eta diploma banaketa. Anja NEUHAUS

biziki txunditu zuen hango jendea. Halaxe aitortu zidan aspaldiko lagun amazig batek.

Gutxiengoen arteko honelako topaketa bat mugarria da Afrika osoan. Tripolitik bueltatu bezain pronto, tubuerazko hiztegi baten aplikazioa sortu zuten gonbidatuek. Kokik eta Osmanek ordu mordoa sartu omen zuten horretan. Bitartean, Txaden sei asteko alfabetizazio ikastaroak egiten jarraitzen dute: bukaeran sariak ematen dira idazlan lehiaketako irabazleentzat, eta ziurtagiri bana parte hartzaile guz-

tientzat. Honelako gaiak proposatzen dira: «Zergatik ematen zaizkie arabiar izenak jaioberriei, eta ez tubuak?»; «Zergatik baztertzen dute tubuek beren musika? Ondo iruditzen zaizu?». Merezi du zentroko web orrian sartzea (bilatu *mosko handii* Googlen). Hamaika bideo eta argazki daude. Bestalde, idatzitako tubuerak zer itxura duen ere ikus dezakezue.

AUTOESTIMUA

«Umeek alfabetoa ikasten dutenean zerbait pizten zaie barruan. Badirudi harridura sortzen diela irakurtzen ari direna ulertzeak», zioen Simonek. Dirudienez, Txaden eskasa da oso irakaskuntza eta umeek ia ulertu gabe irakurtzen dute frantsesez. Kokik konfirmatu zidan Simonen baieztapena, eta *ka yuu-a*, hau da, “esne hizkuntza” ala amazikuntza zaintzearen garrantzia gogorarazi zidan. Ahozko hizkuntza bat ez da zertan izan behar idatzizko bat baino txikiagoa. Tamalez, horren hiztunek nekez pentsatuko dute parekoak direla, areago besteen era guztietako formatuetan idazten baldin bada.

«Bizitzaren esparru guztietan lez, autoestimu kontua besterik ez da; faltan denean, hizkuntza hil egiten da», laburbildu zuen Kokik. Txadetik iritsi berria zen aldizkari bat zuen eskuan. Erditik grapatutako fotokopia multzo bat besterik ez zen; hiztegi eta deklinazio taulak zeuden, gurutzegramak eta marrazki asko. Oraindik etxean daukat. Armiamari *dunu* esaten zaio, *gumar* matxinsaltoari eta *dūguli* lehoiari. Askok diote “tximeleta” hitza polita dela hizkuntza guztietan. Tubueraz *popur* esaten da.